

Turista galduak

Lau zikoina bi egunez pausatuta egon dira aste honetan Gorlizko elizan

Zaharrenek ere ez zuten gogoratzen inoiz zikoina bat ikusi izana; «egundo ere ez neure bizitza guztian», zioten batzuek

Hegazti errariak pausatuta dira, abestian bezala, iragan asteazkenean; ezohiko leku batean pausatuta ere. Kostaldean oso arraroa izaten da honelako hegaztiak ikustea, Kantauriko itsasertzean behinik behin. Arratsaldeko bostak aldera, elizaren inguruak airetik aztertu ondoren, kanpandorrearen gainean gelditu ziren lau zikoina.

Dorrea kale nagusitik ederriki ikusten denez, laster hedatu zen bisitarien berria Elelalde inguru osoan, eta jendea hurbiltzen hasi zen eliza, frontoia eta udaletxea biltzen dituen plazara. Gorlizen sarri ikusten dira usoak, hegaberak eta horrelako hegazti migrariak, baina zaharrenek ere ez zuten gogoratzen inoiz zikoina bat ikusirik; «egundo ere ez neure bizitza guztian», zioten batzuek. Laster hasi ziren bisita bitxiaren arrazoiak azaltzeko era guztietako teoriak azaleratzen.

Herriko argazkizaleak ere mugitu ziren: kamerak hartu eta ondoko etxeetatik ibili ziren hegaztien ikuspegiarik onena lortzeko ahaleginean. Udaltzainak ere udaletxeko teilatura igota... Hain handiak izanik, Anton Uriartek Uresarantze auzoko bere ortutik ikusi zituen elizaren gainean bueltak. Loredendako Andonik honela zioen: «Une batez alde egin zuten, eta herritik bazihoazela pentsatu genuen, baina handik gutxira bueltatu ziren».

Abadearen etxe ondoan bizi da Uriarte, kasinoa izandako etxean. Berak badu bere teoria hegazti hauen ezusteko etorrera azaltzeko: «Berotegi efektuagatik da. Horregatik aldrebesten ari dira eguraldia eta animalien ohiturak, sika-teagatik». Izan ere, egunotako eguraldi lehor eta eguzkitsuak eurek maite duten barnealdeko giroa gogorarazi die hegazti hauei, eta, akaso, bertan gelditzeko leku goxoa dela pentsatuko zuten.



PATRI IBARRA

Zikoinak Gorlizko elizan. Bi egunez egon dira aste honetan bertan pausaturik.

Biharamunean ere hantxe segitzen zuten zikoinak. Kanpandorrea utzi eta teilatuko gailurrean zeuden, erreskandan, atsedean hartzen bezala. Izan ere, horixe egiten ari ziren, Txipio Bai naturzaleen elkarteko Iñaki Ortigosak azaldu zigunez. «Urtero zeharkatzen dute Euskal Herria, gehienek uda Europako erdialdean eman eta bertan ugaltzeko». Baina barnealdetik egin ohi dute hori, Pirinioetatik

Ibilbidea

■ ■ ■ Litekeena da aurtengo giro epelak erakarririk, ezohiko bidea hartu izana zikoinak Europarako: itsasoko bidea

hain zuzen. «Litekeena da aurtengo giro epelak erakarririk zikoinak ohiko ez duten bide bat hartzea Europarako, itsasoko bidea», esan zigun Iñakik.

Piztien pausaleku

Gorliz era guztietako piztien halabeharrezko pausaleku bihurtuta dago azkenaldion, uda partean Bizkaiko Foru Aldundiak animalien erreku-

perazio zentroa Kukuluko etxaldera ekarri zuenetik. Herriko hondartzan eta kostaldeko amildegietan atzemandako itsas txori dezente Kukulura eraman dituzte, antza denez Erika petroliontziaren marea beltzak kutsatuta.

Herenegun eguerdian, berriz, zikoinak alde egin zuten eta geroztik ez dira bueltatu.

Guk dakigula, Gorlizko elizan gertaturiko bigarren okupazio kasua izan da zikoinena. Behinola, egun doi-doi ikus daitekeen eguzki erlojuaren parean erle talde bat kokatu zen, eta asko kostata lortu zuten handik bidaltzea. Hala ere, kode penal berria ez omen luke aplikatuko elizako autoritateak kasu honetan. Aita Nicolas abadeak «pozik» emango lieke bertan gelditzeko baimena, habiarik edukiz gero. «Sakristauak deitu eustan abisatzeko eta hemen jendea arduraz ibili da, lotuko ete diren», adierazi digu.

Jabi Zabala
GORLIZ

Teknologiaren zaintza
Enpreen Berrakuntzarako atea
Vigilancia tecnológica
Fuente de innovación para las empresas

2000ko martxoaren 20an Robotika-Bizimaren akademiaren, Zuzendakari Teknologikoa Zuzendakari 202. auzokoa. Irteerak: 8.500 pta. Informazioa: Tel.: 948000298 Fax: 948000299 marketing@robotikazan	20 de marzo de 2000 Guía de acción Robotika- Zanitz: Parque Tecnológico de Zamudio Edificio 202 Irteerak: 8.500 pta. Información: Tel.: 948000298 Fax: 948000299 marketing@robotikazan
--	--

ROBOTIKA-BIZIMAREN
AKADEMIA, ZUZENDAKARI
TEKNOLOGIKOA, S.A.
ZAMUDIO (48940) (Viz.)

Robotika Foru
Zuzendakari
202. auzokoa
Zamudio (48940) (Viz.)